

ARETXABALETAKO UDALARI PROPOSAMENAK

BIODIBERTSITATEA



PROPUESTAS AL AYUNTAMIENTO DE ARETXABALETA

BIODIVERSIDAD



Arratsalde on denoi:

Azken urteetan bezala, Kurtzeberriko ikasleok, Eskola Agenda 21 programaren bidez, gure herriko ingurumenaren egoera aztertzen aritu gara.

Aurten BIODIBERTSITATEAREN hainbat aspektu landu ondoren, udal honi zenbait proposamen egitera gatoz.

Hona hemen gure lanaren ondorioak:

Buenas tardes:

Como todos los años, el alumnado de Kurtzeberri, dentro de Agenda 21, hemos analizado la situación del medio ambiente en nuestro pueblo.

Después de haber trabajado este año distintos aspectos de la BIODIVERSIDAD, venimos a hacer unas cuantas propuestas a este Ayuntamiento.

He aquí los resultados de nuestro trabajo:



Kaixo,

Gu lehenengo zikloko ikasleak gara, eta zorroak eta materiaren zikloa landu genituen. Ekintza desberdinak egin genituen: konpostagailuetara joan, konposta jaso eta zorroak bilatu eta identifikatu.

Gustura aritu ginen, baina, gauza batzuetaz ere ohartu ginen. Hori dela-eta, Udal honi eskaera hauek egin nahi dizkiogu:

- **Sortutako konposta herriko parkeetan erabili.**

Mila esker zuen arretagatik.

1.zikloko ikasleak

Hola,

Somos alumnos del primer ciclo y hemos trabajado el ciclo de la materia y los insectos y demás bichos que participan en ella. Para ello fuimos a las composteras, recogimos una muestra y buscamos los animales que había y los identificamos.

Anduvimos a gusto, pero también nos pudimos dar cuenta de ciertas cosas. Por ello, queremos solicitar al Ayuntamiento lo siguiente:

- ***Que el compost realizado se utilice en los parques del pueblo.***

Muchas gracias por vuestra atención.

Alumnos del 1^{er} ciclo



Arratsalde on guztioi:

Aretxabaletako Ikastetxeetako 3. eta 4. mailako ikasleen ordezkariak gara. Guk, inguruko landaretza eta haziak aztertu genituen, eta horretarako, inguruko lorategi bat, baratze bat eta parke bat bisitatu genituen.

Ikusitakoak ikusita, Udalari honako konpromisoak eskatzea erabaki dugu:

- **Landare desberdinak landatzea urtaroen arabera eta kartelak ipintzea lorategietan loreak zaintzeko.**
- **Lorategietan beste landaketa batzuk egitea: barazkiak eta fruta-arbolak. Horrela biztanleak eta animaliak jan ahal izateko.**
- **Parkeetan eta lorategietan neurri zorrotzagoak hartzea txakurren kaka jasotzeko.**
- **San Miguel auzoan loreak zaintzea, Belorrieta auzoan zelaiak txukundu, Ilargi plaza belarrez estali eta Iturri gorri basoa orain bezala zaintzea.**

Gure eskaera kontuan izango duzuelakoan, eskerririk asko.

3. eta 4. mailako ordezkariak.

Buenas tardes:

Somos los y las representantes de 3^{er} y 4^o curso de los colegios de Aretxabaleta. Hemos trabajado la vegetación y las semillas de los alrededores (un jardín, una huerta y un parque).

Visto lo cual, solicitamos al Ayuntamiento que tome las siguientes medidas:

- *Plantar diversas plantas según estación, y colocar carteles en los jardines para cuidar las flores.*
- *Realizar otras plantaciones en los jardines: verduras y árboles frutales. Así, los podrán comer la gente y los animales.*
- *Tomar medidas más severas en parques y jardines para que se recojan los excrementos de los perros.*



- ***Cuidar las flores en el barrio de San Miguel, adecentar los prados en el barrio Belorrieta, cubrir de hierba la plaza Ilargi, cuidar como hasta ahora el bosque Iturri gorri.***

Esperando que toméis en consideración nuestras propuestas, muchas gracias.

Representantes de 3^{er} y 4^o curso.

Kaixo denoi,

Guk, 5. eta 6. mailako ikasleok, Deba erreka aztertu genuen. Horretarako, bi taldetan banatuta, erreka bi puntu aztertu genituen.

Hori egin eta gero, Aretxabaletako Udalari zera eskatzen diogu:

- **Errekaren kanpainarekin jarraitzea bai garbiketan bai informazio kanpainetan.**
- **Kartelak ipintzea errekan.**
- **Iturri gorri basoko plakak konpontzea hainbat apurturik baitaude.**

Eskaera hauek guztiak kontuan hartuko dituzuelakoan, aurrez mila esker.

5. eta 6. mailako ikasleak.

Hola,

El alumnado de 5^o y 6^o curso analizamos el río Deba. Para ello nos dividimos en dos grupos y analizamos dos puntos.

Una vez analizado el tema, solicitamos al Ayuntamiento de Aretxabaleta que tome las siguientes medidas:

- ***Continuar con la campaña del río, tanto con la de la limpieza como con la de información.***
- ***Colocar carteles en el río.***
- ***Arreglar las placas del bosque de Iturri gorri, ya que varias de ellas están rotas.***



Esperando que toméis en consideración todas las peticiones, muchas gracias por anticipado.

Alumnos de 5º y 6º curso.

Arratsalde on,

DBH 1. zikloko ikasleok gure inguruko ekosistemek zein zerbitzu eskaintzen diguten aztertu dugu. Horretarako, herri inguruko hainbat ekosistemei begirada bat eman genien eta ondorio honetara heldu gara: herriak beste ekosistema guztien beharra duela aurrera egiteko, ez baitu aski bere buruarekin.

Orduan ikusi genuena ikusita, ondorengoa eskatzen diogu Udalari:

- **Ingurumen seinaleak jartzea.**
- **Berdegunek errespetatzea eta arrazoiren batengatik baten bat kendu behar bada beste nonbaiten berria jarri hori berdintzeko.**
- **Txarapeako hesia konpontzea.**

DBH 1. zikloko ikasleak

Buenas tardes,

Somos alumnos de 1º de ESO y este año hemos analizado los servicios que nos ofrecen los distintos ecosistemas de nuestro alrededor. La conclusión a la que llegamos fue que el pueblo necesita de otros ecosistemas para salir adelante ya que no es autónomo.

Después de todo esto, proponemos al Ayuntamiento lo siguiente:

- **Poner señales de medio ambiente.**
- **Respetar las zonas verdes y si por alguna razón hubiera que quitar alguna de ellas, realizar una nueva en otro sitio para que haya las mismas que ahora.**
- **Arreglar la cerca de Txarapea.**



Eta bukatzeko DBH 2. ziklokoena.

Kaixo,

DBH 2. zikloko ikasleak gara eta guk ere biodibertsitatea landu dugu aurtun. Biodibertsitatearentzat beharrezkoak diren LIKENAK aztertu genituen Urkulu eta Larriñon zehar egin genuen ibilaldian.

Ikusitakoaren arabera, ondorengoa eskatzen diogu Udalari:

- **Zakarrontzi eta iturri gehiago jartzea.**
- **Udalak kontzientzia kanpainak egitea.**
- **Fabriken kontrol zorrotzagoa.**

Mila esker

DBH 2.zikloko ikasleak

Somos de 2º curso de ESO y también nosotros hemos trabajado la BIODIVERSIDAD. Hemos estudiado los líquenes, tan necesarios para la biodiversidad, en el recorrido que hicimos en Urkulu y Larriño.

Solicitamos al Ayuntamiento lo siguiente:

- ***Poner más papeleras y fuentes.***
- ***Que el Ayuntamiento realice campañas de concienciación.***
- ***Control más ferreo de las fábricas.***

Honekin gure aurtengo lana bukatzen dugu, eta zuei pasatzen dizuegu txanda. Arratsaldeon eta eskerrik asko.

Con esto finalizamos nuestro trabajo por este año, y ahora es vuestro turno. Buenas tardes y gracias.